



txintxarri



Kaleak hartzeko irrikaz

San Pedro Jaiak eta Sorgin Jaiak hasi
aurreko aldizkari berezia argitaratu dugu / 1-32

TXINTXARRI

 **Ges**
aseguruak

Gora San Pedro Jaiak!
Gora Lasarte-Oria!

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia


- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!





TTAKUN KULTUR ELKARTEA

**Ttā
kun**
Kultur Elkartea



**MAKARROI JANA
ETA BUSTI BLAI JAIA**

EKAINAK 26 | 13:00

13:00 | OKENDON ELKARTU
13:15 | KALEJIRA ATSOBAKARRERA TXARANGAREKIN
14:00 | MAKARROI JANA ATSOBAKARREN
ONDOREN UR-JOLASAK ETA BUSTIBLAI

**PATXINTXI
SARIAK**

EKAINAK 26 | 12:30

UDALETXEKO PLENO ARETOAN
BEA EGIZABALEKIN

SORGIN DANTZA

EKAINAK 26 | 16:30

ORIAKIK
OKENDO PLAZARA

**KANTU DANTZA
JIRA**

EKAINAK 29 | 11:30

SAGARDOTEGI KALETIK
HERRIAN BARRENA

SAGARDO DASTAKETA

EKAINAK 29 | 18:00
OKENDO PLAZAN



Ekainaren 28a da eta ajearekin esnatu zaren arren, ordu erdi barru geratuta zaude kuadrillakoekin ontziari azken ukituak emateko. Hilabete daramazue material bilketan eta konturatzeko eguna iritsi da: gaur sorginok pirata bilakatu eta Oriar zehar nabigatuko duzue! Nabigatu edo, zakar eta harri artean trabatuta ez geratzen saiatu...

Elebeltzeko aldapan hasiko da jetsiera, baina gaurkoan hara iristeko etxetik atera eta ez zara anbulategiko iturri urdin horren ondotik pasako, ezta Okendoko errepidea gurutzatuko ere, gezurra dirudien arren, Oriako jaitsiera 2026ko Sorgin Jaietan egingo duzue-eta. Sorgin Jaietako jarduera berezietako bat berreskuratzearen arrazoia zuen urtebetetzea da, Sorgin Jaiei 25. urteurrena! Zorionak guri!

Herritarrek dagoeneko hasi dira pijamak, zapiak eta blusak prestatzen, pasa den maiatzaren 9an eman baikenion hasiera

25 URTEZ ENTZUN DUGUN HERRI BATEN OIHUA

SORGIN JAIK HERRIKO FESTA ALTERNATIBOEN 25 URTE BETE DITUZTE



diren sorginekin elkartu eta iraganari begira jarri ginen denok; Free Tourra antolatu genuen Lasarte-Oriako festa alternatiboan

Iragana gogoratu genuen, bai, baina orain etorkizunari begira jartzea dagokigu, herri honen oihua inoiz baino altuago egitea eta 25

Horretarako, lasarteoriatarren laguntza behar dugu. Gaur arte euskararen, feminismoaren eta herrigintzaren bueltan eraiki izan

ditugun festa hauetan herritar ororen ekarpenak ongi etorriak izango dira, musu truk egindako lanak mantentzen gaituelako bizirik. Nolakoa izango litzateke Sorgin Jaierik gabeko Lasarte-Oria bat? Txosnarik ez, euskarazko kontzertu bakarra edo bi, asko jota eta gazteei begiratzen ez dien egitarau bat, besteak beste. Hau da, herritarrentzako antolatutako diruditen festak, baina benetan herritarren nahiak kontuan hartzen ez dituztenak.

Zailtasunei aurre egitea ez da erraza, batez ere lagundu beharko ligukenen erakundeek oztopoak besterik jarritan ez dizkigutenean, baina urtero bezala aurre egingo diegu eta Lasarte-Oria sorgintzen jarraituko dugu! Eta bitartean, berandutzen ari zarenez, jarri ozen Herri baten oihua, prestatu sandaliak, mangitoak eta duzun bainujantzirik zaharrena, eta abiatu Oriar zeharkatzerara.

Gora Sorgin Jaiek!



Tradizioa, zaporea eta gertutasuna

Jauregi bailara, GALARRETA 20120 HERNANI



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU LASARTEORIATAR GUZTIO!!!

Ekainaren 23an,
SAN JOAN BEZPERA GAUA,
IREKITA egongo da

Ekainaren 29an SAN PEDRO
egunerako zure erreserba
egitera gonbidatzen zaitugu

943-33 56 95 www.suharrihernani.eus

zitek
zientziaeskola
apoyo escolar

GORA
SAN PEDRO
JAIK!



Utzi matrikula eginda datorren ikasturterako,
EZ ORDAINDU MATRIKULA
eta goza ezazu udaz!



Matrikula egiteko egunak:
ekainak 22, 23 eta 24
10:00etatik 12:00etara

Ziteken bertan
(Goikale Kalea 12, behea
Lasarte-Oria)


edo eskatu
email bidez:

info@zitek-akademia.com

Goikale Kalea 12, behea Lasarte-Oria

info@zitek-akademia.com | www.zitek-akademia.com

943-36 31 06



San Pedro Jaiak hasteko astebete besterik ez da geratzen. Atariko ekimenez gozatuko dugu motorrak berotzeko. Behin jaiak eztanda eginda, adin guztietarako jardueraz betetako egunak izango ditugu aurretik.



Okela
Maialen

- ARTISAU URDAITEGIA
- ETXEKO JANARIA
- BERTAKO HARAGIA

Ondo pasa San Pedro Jaietan!

Kale Nagusia, 41 LASARTE-ORIA • Tel.: 943-36 39 12
Nafarroa kalea, 3 LEGAZPI • Tel.: 943-73 18 25
(Maialen) Karmelo Etxegarai, 10 DONOSTIA • 943-31 40 43 [\(Igantetan irekita\)](#)



EKAINAK 26, OSTIRALA

10:00ETATIK 12:00ETARA, 5 eta 12 urte arteko haurrentzako UR FESTA, Maialen Chourraut kiroldegian.

12:00ETAN, HAURREN TXUPINAZOA, udaletxe zaharreko balkoitik. ERRALDOI ETA BURUHANDIEN konpartsa aterako da, OAINXE IN DEU! ETA GAUTXORI txarangak lagunduta.

12:30EAN, GURE PATXINTXIAK sariak irabazi dituztenei aitortza ekitaldia,udaletxean.

14:00ETAN, HAURREN HERRI BAZKARIA, Atsobakar parkean. Bazkalostean UR JOLASAK ETA BUSTI BLAI jarduera egingo dituzte auzoan barrena.

16:30EAN, SORGIN DANTZA, Oria auzotik abiatuta.

18:30EAN, OAINXE IN DEU! TXARANGAko kideen emanaldia, kultur etxetik abiatuta.

18:30EAN, ARRANOPOLA

TXARANGAko kideen emanaldia, Jaizkibel plazatik abiatuta.

19:00ETAN, TXUPINAZOA ETA JAIETAKO PREGOIA, omendua izango den LASARTE-ORIAKO GURUTZE GORRIaren eskutik, udaletxeko balkoitik. OAINXE IN DEU! ETA ARRANOPOLA txarangek lagunduta.

20:15EAN, TIO TERONEN SEMEAK taldearen emanaldia, Okendo plazan.

22:30EAN, ZESENSUKOAK, Kale Nagusian.



23:00ETAN, JAGOBA taldearen emanaldia, Okendo plaza.

23:00ETAN, LOS TENAMPAS taldearen kontzertua, Isla plazan.

23:00ETATIK 03:30ERA, VIDU ETA ABIBA DJak, Oriarte Landaberriko gunean.

23:50EAN, HAZAS-en kontzertua, Okendo plazan.

00:30EAN, LA OTRA OREJA taldearen kontzertua, Jaizkibel plazan.

01:30EAN, MIRARIren kontzertua, Okendo plazan.

EKAINAK 27, LARUNBATA

06:30EAN, ARRANOPOLA TXARANGAko kideen emanaldia, Okendo plazatik abiatuta.

07:00ETAN, XEXENAK, Saka ganadu etxearen eskutik, Sasoeta LH ikastetxean.

11:00ETAN, HAURREN DANBORRADA, Kale Nagusitik abiatuta.

11:30ETIK

13:30ERA, GAZTEENTZAKO PARKEA, Andatza plazan. Euria egiten badu, jarduera eten eta Loidibarren pilotalekura eramango dute.

12:00ETAN, BIYAK BAT EGOITZAKO DANTZARIEN ERAKUSTALDIA, Okendo plazan.

Euria egingo balu Oriarte Landaberriko patioan.

13:00ETAN, VOCES NAVARRAS

taldearen jota emanaldia, Isla plazan.

16:00ETATIK 17:00ETARA, BOLA ETA TOKA TIRADA, Michelin kirol gunean.

16:30ETIK 18:30ERA, GAZTEENTZAKO PARKEA, Andatza plazan. Euria egiten badu, jarduera eten eta Loidibarren pilotalekura eramango dute, 20:30ak arte.

18:00ETAN, BIYAK BAT ELKARTEKO JOKOEN SARI BANAKETA, Biyak Bat-en egoitzan.

18:00ETATIK AURRERA, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN

gremioen gida 2026

Eskura eta herrian. Zerbitzurik onenak, zuretzat!

Elektrizitatea



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

Igeltseritza

Kristaldegia

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

34. URTEURRENA



PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

943-36 64 95
ventas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA

Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL

Barne diseinua

SUGATE

SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPRIMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTITAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361471
www.sugatecocinas.com



KONPARTSA herriko kaleetan zehar.

18:00ETAN, GIZA DORREAK, Vilafranca del Penedes (Katalunia) hiritik etorritako Falcons taldeko kideen eskutik, Okendo plazatik abiatuta.

19:00ETAN, DINBI BANDA herriko taldearen batukada emanaldia, Jaizkibel plazatik abiatuta.

22:30EAN, ZESENSUZKOA, Kale Nagusian barrena.

23:00ETAN, CHAMBAOren kontzertua, Okendo plazan.

23:00ETAN, PASARELA ORKESTRAREN emanaldia, Isla plazan.

23:00ETATIK 03:30ERA, DJ VIDU ETA DJ NEMUX, Oriarte Landaberriko gunean.

00:30EAN, LA ORQUESTA MONDRAGON taldearen kontzertua, Jaizkibel plazan.

00:30EAN, DINBI BANDA herriko batukada taldearen emanaldia, Okendo plazatik abiatuta.

01:30EAN, MODUS OPERANDI taldearen kontzertua, Okendo plazan.

EKAINAK 28, IGANDEA

06:00ETAN, ARRANOPIOLA TXARANGAKO kideen emanaldia, Okendo plazatik abiatuta.

06:30EAN, TXOKOLATE JANA, Elizatze plazan.

07:00ETAN, XEXENAK, Sasoeta LH ikastetxean.

11:00ETAN, PILOTA TXAPELKETETAKO FINALAK, benjamin, alebin eta infantilen kategorietan, Loidibarren pilotalekuan.

11:30ETIK 13:30ERA, HAURRENTZAKO UR PARKEA, Andatza plazan.

12:00ETAN, TXARANGA DEL ORIA taldearen emanaldia, Jaizkibel plazatik abiatuta.

14:00ETAN, HERRI BAZKARIA, DJ BATEK GIROTUTA, Tximistarreta parkean. Mahaiak, aulkiak eta parrillak jarriko ditu udalak. Bakoitzak bere janaria eraman behar du.

16:30ETIK 18:30ERA, HAURRENTZAKO UR PARKEA, Andatza plazan.

18:00ETAN, KALE ANTZERKIA CAPICUA TALDEAREN eskutik, Okendo plazan.

18:00ETAN, EXTREMADURAKO OGI MAMIEN DASTAKETA ETA NORTE DE LAS HURDES

DANBOLINDARIEN EMANALDIA, Jaizkibel plazan.

19:00ETAN, HOLI FEST EKITALDIA, DJ eta guzti, Tximistarreta parkean. Kamiseta zuriekin eta begiak babesteko betaurrekoekin joatea gomendatu dute.

19:00ETAN, MOCEDADES taldearen kontzertua, Isla plazan.

22:30EAN, ZESENSUZKOA, Kale Nagusian.

23:00ETAN, DANBORRADA, Okendo plazatik abiatuta.

23:00ETATIK 02:00ETARA, DJ MARKELIN, Oriarte

%30eko
DESKONTUA
eguzkitako
betaurrekoetan



IRIGOYEN

OPTIKA

Ondo pasa eta gozatu festak!

Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943-37 10 47



Araeta

sagardotegia

*Gora San Pedro Jaiak!
Ondo pasa eta disfrutatu!*



Tel: 943-36 20 49

Berridi Bidea 22
20160 Zubieta

araeta@araeta.com

bardaji

FINKA ADMINISTRAZIOA

Kale Nagusia 4, behea LASARTE-ORIA
943-36 79 38

info@bardaji.eus | www.bardaji.eus



Landaberriko eremuan.
00:00ETAN, SÜNE-ren kontzertua, Okendo plazan.
00:00ETAN, EL GATO CON JOTAS taldearen kontzertua, Jaizkibel plazan.
00:00ETAN, DUO IMPERIAL taldearen emanaldia, Isla plazan.

EKAINAK 29, ASTELEHENA SAN PEDRO EGUNA

11:00ETAN, MEZA NAGUSIA, San Pedro parrokian.
11:30EAN, KANTU ETA DANTZA JIRA, Sagardotegi kaletik abiatuta.
11:30ETIK 13:30ERA, HAURRENTZAKO PARKEA, Isla plazan. Eguraldi txarra egiten badu Loidibarren pilotalekura eramango dute ekimena.
12:30EAN, HERRI KIROLAK, Elizatze plazan.
13:00ETAN, LASARTE-ORIAKO GURUTZE GORRIKO BOLUNTARIOEI OMENALDI INSTITUZIONALA, kultur etxean.
16:00ETAN, SASO-DANCE ekimena, Jaizkibel plazan.
16:30ETIK 18:30ERA,

HAURRENTZAKO PARKEA, Isla plazan. Eguraldi txarra egiten badu Loidibarren pilotalekura eramango dute ekimena.
18:00ETAN, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA, EZPELUR taldeko gaiteroekin batera, Blas de Lezo kaletik abiatuta.
18:00ETAN, SARDINA JANA, Okendo plazan.
18:00ETAN, SAGARDO DASTAKETA, Okendo plazan.
20:00ETAN, THE NOISEMAKERS taldearen kontzertua, Jaizkibel plazan.
22:30EAN, ZESENSUZKOA, Kale Nagusian barrena.
22:30ean, bertsolariaren jaialdia, kultur etxean: Maddi Lasa, Ane Labaka (herrikoak dira biak), Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Maider Arregi eta Onintza Enbeita ariko dira. Amaia Agirrek jarriko dizkie gaiak.
23:00ETATIK 02:00ETARA, DJ BLESSIVE, Oriarte Landaberriko eremuan.
23:00ETAN, IBAI BERRIAK taldearen kontzertua, Isla plazan.

EKAINAK 30, ASTEARTEA

11:30ETIK 13:30ERA ETA
16:30ETIK 19:30ERA, CIRCUS FERIA, Tximistarreta parkean. Euria egiten badu, Loidibarren pilotalekuan ariko dira.
17:30EAN, HAURRENTZAKO ANTZERKIA PERLI&KOKKOLO bikotearen eskutik, Jaizkibel plazan. Euria egiten badu Kalbario bideko estalkira eramango dute ikuskizuna.
18:00ETAN, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSAREN agurra, EZPELUR taldeko gaiteroak lagun, Blas de Lezo kaletik abiatuta.
18:00ETAN, TSUNAMI ORKESTRAREN kontzertua, Isla plazan.
19:00ETAN, BIZIKLETA ETA MOTO-TRAIL ERAKUSTALDIA BENITO ROS PILOTUAREN eskutik, Andatza plazan.
20:00ETAN, BALKAN PARADISE ORCHESTRA taldearen emanaldia, Okendo plazan.
22:45EAN, Sasoeta ikastetxeko patiotik HURBILEKO SUAK JAURTIKO DITU VULCANO piroteknia etxe ospetsuak.



PAGOIA

Patricia Gonzalez Belmonte

• Osteopatia • Masajea • Drainatze linfatikoa

Tel.: 619 11 10 89
patriciagonzalez.pagoia@gmail.com
Pablo Mutiozabal 2, 1º 3. gela
LASARTE-ORIA

Gora San Pedro Jaiak!

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Zure ongizatea, gure ardura

- ✓ Manikura eta pedikura
- ✓ Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- ✓ Depilazio elektrikoak
- ✓ Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- ✓ Fotodepilazioa argi pulstatuarekin
- ✓ Betileen permanentea eta tindatzea
- ✓ Solariuma
- ✓ Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

ZURE
EDERTASUNA,
GURE
ESPERIENTZIA

*Gora San Pedro Jaiak!
Gora Lasarte-Oria!*

Uistin Kalea z/g
943-37 08 45
Lasarte-Oria

ANORGA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

Ondo pasa San Pedro Jaietan!!

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943-37 17 33 - 610 45 93 45

Ana

GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA
PELUQUERIA DE CABALLEROS

✓ Higienea bermatua

HITZORDUA HARTU!
943-84 19 72 | 672 71 72 06

Ondo pasa sanpedroetan!
Kale Nagusia, 2 Lasarte-Oria



Nerea Eizagirre

Jaietako ekimen guztietan herriarren ongizatea zaintzen egon ohi da Gurutze Gorria. 1984an hasi ziren lanean Lasarte-Orian boluntario talde baten eskutik eta urte hauetan guztietan egin duen lana eskertzeko, aurten San Pedro Jaietako omendua izango da Lasarte-Oriako ordezkaria. Amaya Goyaran (Lasarte-Oria, 1958) ordezkarietako presidentearekin bildu gara elkarteak egiten duen lana eta hastapenen gainean gehiago jakiteko.

Nola jaso duzue omendua izatearen berria?

Ilusio handia egin digu. Egindako lan guztiak zerbaitetarako balio duela pentsarazten digu. Jendeak ez digu normalean aitortzen. Sakrifizio bat da, ordu mordo sartzen dugu.

Gurutze Gorria Lasartera 1984an iritsi zen, oraindik udalerrri ez zenean. Zergatik dago ordezkaria gure herrian?

Donostian jende asko ginen herrikoak eta Errekalderra joan behar ginen bertako postu militarra. Orduan, kontuan izan, soldaduska zegoen eta libratzeko, Gurutze Gorrian egin ahal zen zerbitzua. Beraz, Lasarte-Oriako taldetxo hori — hamar bat izango ginen, gehiago ez — animatu zen herrian antolatzera.

Lehen urte horietan nola moldatzen zineten?

Lanean hastean argi esan ziguten: 'Ez dago ezer'. Beno, ambulanzia bat utzi ziguten. Eta pixkanaka bada antolatzen joan ginen.

Irudimen handiz, hau da, ambulanzia normalean Hipodromo etorbidean aparkatzen genuen. Eguraldi ona egiten bazuen, kafetegi bat zegoen kanpoan mahai bat zuena eta han egoten ginen walkie-talkiearekin irratia entzuten.



Amaya Goyaran, Lasarte-Oriako komiteko presidentea, Gurutze Gorriko ambulanzien aurrean. TXINTXARRI

OMENDUA

"Ilusio handia egin digu. Egindako lana guztiak balio duela pentsarazten digu"

AMAYA GOYARAN LASARTE-ORIAKO GURUTZE GORRIKO PRESIDENTEA

1984an hasi zen lanean Gurutze Gorrian Lasarte-Orian. Lan prebentiboak egiten ditu hainbat arlotan, hala nola, San Pedro Jaietako ekimenetan

Eta batzuetan etxera irratia-ekin joaten zinen eta deitzen zizuten. Korrika ateratzen zinen, denak jasotzen zenituen eta tira aurrera.

Ez zegoen mugikorrik, orduan dena irratia bidezkoa zen. Askotan gogoek baliabideek baino gehiago balio zuten. Gipuzkoan eguneko 24 orduetan funtzionatzen

zuen zentroa zegoen guztia koordinatzeko. Oso ezberdina zen.

Gerora, Osasun zentroa gaur egun dugun egoitzatik [Adarra kalea, 1] joan zenean, Michelinekin negoziatu eta lokala erosi genuen.

Eta horrela eman genituen lehen urratsak.

Ordu hartan, zer lan egiten zenituzten?

Orduan larrialdi-sarea ginen. Hau da, Gurutze Gorriaren bidez artatzen ziren trafikoko ezbeharrak, 2000. urtera arte praktikan. Orain Osakidetza darama. Ambulanzia genituen herri guztietan, errepide guztietan.

Gero lan prebentiboetara bakarrik igaro ginen. Baina badaude uneak laguntza ere eskatzen

dizutenak eta jaiak iristean guk SOS Deiak-i abisatzen diogu: 'Kaleko ekimenetan izango gara ordu honetatik honetara. Zerbait behar baduzue, deitu'. Horrela eurak etxeetako larrialdietara bakarrik dedikatzen dira. Koordinatzen goaz.

Etxean etxeko zerbitzua ere egiten zen, premiazko mediku atentzioa...

Eta gaur egun zer nolako jarduerak duzue?

Une honetan bi lerro ditugu, gehiago ireki nahi ditugu, baina bi lerro ditugu.

Batetik Gipuzkoan aitzindariak izan gara adinekoen nahi gabeko bakardadea lantzen. Zoragarri funtzionatu du proiektuak. Konpainia handia egiten dieten Alexak jarri dira etxeetan eta hamabost egunez behin, osasun hitzaldiak ematen zaizkie erabiltzaileei alderdi psikologikoa landuz edo euren kabuz moldatzeko tailerrak egiten dira. Ez da oso talde handia, baina pixkanaka ari dira lanean. Bikote bat ere sortu da eta badago erabiltzaileen bat boluntario egin dena.

Eta bestetik alderdi prebentiboa dago. Jendeak ulertzen ez duena. Lasarte-Orian jai guztiak egiten ditugu; udalak esaten digun edozein ekitaldira goaz edo batzuetan alderantziz da, adibidez, kopako partidaren kontuarekin, gu izan ginen eurei esan genionak: 'Gu joango gara, beharra egongo baita'. Jon Martin eta Lander Astiazaran harrera egin zitzaion

"Ezer ez gertatzea da egokiena. Baina eta gertatzen bada? Hori da guk beti buruan duguna"

Jalgi

Kafe Antzokia



Geltoki Kalea, 4 behea
LASARTE-ORIA

Gora San Pedro Jaiak!

Zatoz gurekin festak igarotzera!

Egunean zehar jan pintxoak eta gauetan egin dantza gurean!



egunean ere hor izan ginen. Udalarekin ere koordinatzen gara.

Aurten jaietan berrikuntza bat izango dugu, gauean hemen artatzeko gune bat jarriko dugu; mediku bat larrialdietako teknikari batekin. Hau da, norbaitek ebakiren bat egiten badu Hernanira edo Donostiara bidali beharrean hona etorri eta medikuak edo dagoen erizainak josiko ditu.

Egunez beste modu batera moldatu dezakegu, baina gauez oso konplexua da. Adibidez, txekorretan bi urte daramatzagu inor larrialdietara eramane gabe; gauzen ehuneko laurogeita hemeretzi hemendik artatzen baita. Iaz mutil bati sorbalda atera zitzaion eta klabikula apurtze posible bat zegoen. Adingabekoa izanik, gurasoekin joan behar zuen, beraz, immobilizatu eta aitak eraman zuen. Era horretara, herria ambulanziarik gabe uzteko gauza mordoia saihesten dituzu.

Zubietarekin eta Hipodromoarekin ere lan egiten dugu. Hipodromoan zaldi lasterketa guztiak estaltzen ditugu eta Zubietan futbol partidak; larunbat batzuetan hamabi ordu egiten ditugu.

Zergatik diozu jendeak ez duela prebentzio lan hori ulertzen?

Jendeak esan ohi digu: 'Baina joan zarete eta ez duzue ezer egin'. Eta nik erantzuten diet: 'Hain zuzen ere horregatik da garrantzitsuago joatea'. Hori da egokiena, ezer ez gertatzea. Baina eta gertatzen bada? Hori da guk beti buruan duguna. Osteogunean zaldi lasterketetan gertatu zitzaigun. Jockey bat hegan atera zen hesiaren gainetik eta ibaira erori zela uste genuen. Baina ez, adar batek harrapatu zuen eta han geratu zen. Orduan, jaitsi ginen eta igo genuen. Horrelakoetan gaitzerdi hor gaudela. Eta horrelakoetan lanean



Eszerrean, Gurutze Gorriko boluntarioak azaroan egindako ate irekietan. Eskuinean, 'Enrédate' proiektuko saio bat. TXINTXARRI



ikusten zaituzten lehen egunean dena ahaztu egiten zaie.

Urte hauetan guztietan jende askori lagunduko zenioten. Baduzue gutxi gorabehera zenbakirik?

Ez, oso zaila da. Informatikaren eta abarren garaian, botoi bati eman eta zenbakiak atera ditzaitezke, baina askotan jendea artatzen duzu eta ez duzu oharririk ere hartzen.

Adibide bat Behobia da. Korrikalari bat dator uzkurdurarekin; reflexa ematen ari zara eta lau edo bost dituzu atzetik. Edo xenenak amaitzean hamazazpi gazte dituzu sendatzeko. Azkar artatu eta ez oharririk ez ezer. Gero, sendaketa kopuru zehaztugabe bat apuntatzen duzu eta listo.

Lehentasuna, artatzeari ematen diogu estatistikaren gainetik. Guretzat askoz garrantzitsuagoa da.

Egiten duzuen lana egiteko eta etorkizunean mantentzeko jendea beharko duzue, ezta?

Bai. Guretzat garrantzitsua da eta jendea nola erakarri lantzen ari gara. Ideia da Gazte Gurutze Gorriaren atea berriro irekitzea. Urte askotan Lasarte-Orian taldetxoak egon zen. Azken finean

bada modua jende gaztea gerturatzekoa.

Boluntariotzak duen arazo bakarr aengantxatu egiten duela da, nik beti esan dut. Eta imajina ez dezakezun modu batean engantxatzen du.

Gertatzen dena da, gaur egun ez dela lehen bezala. Lehen jendea zetorrenean ikastaro txiki bat ematen zenion eta laguntzen hasten zen. Orain ez da horrela. Anbulanzian egon behar baduzu, osasun garraioko teknikaria izan behar duzu edo osasun larrialdietako teknikaria. Askoz arautuagoa dago kontua. Baina jendea hurbiltzen da eta pixkanaka egiten du.

Eta animatuko zenuke jendea hurbiltzera eta laguntzera?

Nik, jakina. Etor daitezela, ikus dezatela edo egun bat gurekin egon daitezela zer den ikusteko.

Nik jendea animatzen dut. Une honetan garai bat igarotzen ari gara non jendeak sistema informatikoak bakarrik ikusten dituen eta isolatu egiten da. Hemen pertsona batek sozializatu egiten du. Eguneroko arazoak ere ikusten dituzu, ez baititugu prebentiboak bakarrik egiten. Berebizikoak diren egoerekin topo egiten duzu.

Ikusten duzu bizitzaren errealitatea ez dela guztiontzat berdina, baizik eta badagoela jendea audifono batzuk behar dituen, betaurreko batzuk behar dituen, eta benetako malabarismoak egin behar dituzuen horiek lortu ahal izateko. Eta hori oso ondo dator, jendeari solidarioa izaten irakasten baitio, eta aurreiritziak kentzeko ere balio du.

Hau, gainera, lagun talde bat ere bada. Batzuetan gure artean begiratzen dugu eta esaten dugu: 'Gogoratzen al zara ez dakit zer egun hartaz? Eta han nola-hala?' Oso errepikakorrek gara ere bai, gauza beraz ari garela hitz egiten behin eta berriro.

Adibidez, Lasarte-Oriako Gurutze Gorria Nazio Batuak bezalakoa da, nazionalitate guztietako jendea dugu. Hori oso polita da, zeren gainera bakoitzak bizi izan duen istorioa kontatzen baitu; nola iritsi den Gurutze Gorriaino edo nola egin duen bere bidaia, zergatik dagoen hemen... Harreman batzuk ere josten doaz oso politak direnak. **Boluntario fijo gisa egon nahi ez dutenek, nola lagun dezakete?**

Laguntzeko modu asko daude. Badago jendea esaten duena: 'Ai!

Nik ambulanzia, odola...'. Guk programa mordoia dugu jende faltagatik egin ezin direnak, umeekin, helduekin... Eskola porrotaren aurkakoa dago edo adineko jendearekin, egunean behin edo hiru egunez behin deitzea edo pilula kutxa muntatzera joan.

Lasinpleak dira, ordu mordoia dedikatu behar ez zaiena. Agian norbaitek esan dezake: 'Nik bi pertsonari astean behin pastilla kutxa presta diezaieket. Edo ni astean ordu bat joan naiteke norbaitekin paseatzera edo berearekin egotera eta hitz egitera'. Hori nahikoa da, ez da soilik mendi lasterketaren zeharkaldi batean egon behar dut, ez, mila gauza daude egiteko.

Gurutze Gorrian beti esan dugu gizarte beharrak detektatzera dedikatzen garela. Eta horiek konpontzen laguntzen dugu, Administrazioari egoera azaldu, eta gero Administrazioa izan dadila horretaz arduratzen dena. Baina bitartean, gu hor gaude. Beti egongo da zerbaiteko beharra.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus atarian



Gora San Pedro Jaiak!

Ondo pasa!



PATXI LARRAÑAGA
ANA IPARRAGUIRE
NAROA

HARATEGIA · TXARKUTEGIA
Kale Nagusia, 39 LASARTE-ORIA Tel. 943-37 26 68



KULTURA

"Zuzenekoan etapa hasteko oso gogotsu gaude"

JAGOBA MENDIZABAL IMAZ JAGOBA PROIEKTUAREN SORTZAILEA ETA TALDEKO ABESLARIA

Hilaren 26an, gaueko hamaiketarik aurrera, 'Atzera Begirada Bat' diskoa aurkeztuko dute. Jendurrean egingo duten lehen emanaldia da

Iñigo Gonzalez Sarobe

Aurreneko estudioko lana argitaratu eta hiru hilabetera hasiko da JAGOBA proiektua osatzen duen laukotea lan hori zuzenean defendatzen. Non, eta egitasmoaren zutabe garrantzitsu diren bi lasarteoriarren herrian, San Pedro Jaietan. Sortzaile eta abeslariarekin hitz egin dugu, Jagoba Mendizabal Imazekin.

'Atzera Begirada Bat' lanari buruz hitz egin aurretik, etorkizun hurbilean datorkizuenari begiratuko diogu. Kontzertua emango duzue sanpedroetan. Laukote gisa, aurreneko emanaldia izango da.

Orain arte egin ditugun probekin oso gustura geratu gara eta bai, Okendokoa izango da ohol-tza handi batean emango dugun aurreneko kontzertua. Azterketa izango da nolabait esatearren eta errespetua ematen digu, baina, batik bat, gozatzea izango da gure asmoa. Zuzeneko emanaldien etapa hasteko oso gogotsu gaude eta diskoan entzun daitekeenera ahalik eta gehien hurbiltzen saiatuko gara. Pop-rock estiloa da nagusi baina gitarra gogorak ere badaude.

Beñat Bobillo *Bobi* herrikidea, David Vila, Ibon Kazalis eta nik osatzen dugu laukotea. David kataluniarra da eta Bobik fitxatu zuen, gitarra irakasten ziolako. Ibon, berriz, bistaz ezagutzen genuen eta Gure Lasarte Zikiña egitasmoak antolatutako emanaldi batera etorri zen Bellum taldearekin. Gustatu



Ezker-eskuin, lau taldekideak: Ibon Kazalis, Beñat Bobillo 'Bobi', Jagoba Mendizabal eta David Vila. IÑIGO GONZALEZ SAROBE

zitzagun zuzeneko hori eta batzea proposatu genion.

Taldekideetako bi, Bobi eta zu, hemengoak zarete. Norberaren herrian jotzea bereziagoa da?

Pertsonalki, hemen jotzeak errespetu gehiago ematen dit eta urduriago nago, tripan sentitzen dudana desberdina da. Gogortzen naiz duela hiru urte aurkeztu genuela Kinada taldekoak ginenok bigarren diskoa eta orain itzultzeko aukera izango dut baina proiektu pertsonal batekin. Lan txukuna egin dugu orain arte eta uste dut erakutsiko dugula zuzenekoetan.

Duela hiru urteko kontzertu horretaz gogoratu zara. Gauza asko aldatu dira tarte horretan, ezta? Egindako ibilbidearen barruan, non

kokatzen duzu 'Atzera Begirada Bat' lana?

Kinada taldeko kide nintzenean gogoia sentitu nuen gauza berriak esploratzeko. Herrian, parrandan ginela, Hazasekin hitz egin nuen: ea noizbait egingo genuen zerbait elkarrekin bakoitzaren estiloa oso desberdina izanda ere. Kantuak sortzen hasi ginenean audioak gordeta ditugu eta lotsa ematen digu entzuteak (barreak). Lan horietako baten bozetoa erakutsi nion orduan nire gitarra irakaste zen Bobiri eta hasieran harritu samar geratu bazen ere, batu eta zuzeneko proiektuari ekin genion. Hasi aurretik, hori bai, argi esan genion elkarri iraugitze data jakin bat izango zuela.

Zenbat Gau eta Denbora abestiak atera genituen eta zuzenekoak eman bitartean beste kantu batzuk landu genituen Bobik eta biok: *Argiak Itzaltzean* eta *Bihar Ere*. Hor, oraindik, diskoarena ez geneukan argi, baina oinarria bagenuen.

Hilabeteak pasa eta gustura ari ginela ikusten genuenez, aurrera jarraitzea erabaki genuen eta azkenean aurtengo martxoaren 28an argitaratu genuen *Atzera Begirada Bat*. 11 kantu ditu eta guztiek dute lotura estiloari eta zeresanari dagokienez. **Sakondu dezagun bi alor horietan. Zeintzuk dira diskoaren estiloa eta zeresana? Azken horri dagokionez, izenburuak ematen du pistaren bat edo beste.**

Gai ugari jorratu ditugu eta, bakoitzak bere ezaugarriak izan arren, berbera izan da abiapuntua: atzera begiratu, gauzak nola zeuden ikusi eta gaur egun nola dauden. Abesti batzuen kutsua ezkorra da baina mezu positiboak ere badaude, adibidez, aurreneko abestian, *Joan Zinen Egune-tik* izenekoan. Gaixotasun mentalez hitz egiten du, abstraktuki. **Albuma oso kolaboratiboa izan da eta ez abestietan parte hartu duten gainerako musikariengatik bakarrik, baita beste alorretatik ere: grabaketa, ekoizpena, diseinu lanak... Horrek ere balioa eman dio diskoari, ezta?**

Horrelako lan bat egiteak asko bete nau eta dena balio du gertuko eta konfiantzazko pertsonekin aurrera eramanez. Kuadrillako lagunak [*Bihar Ere* abestian parte hartu dute], abestietako bateriak grabatu dituen Oihan Agirretxe, diskoa ekoiztu duen Ozen estudioko zuzendari Jurgi Taboada eta albumaren euskarri fisikoa diseinatu duen Sara Etxeberria *Basoko Maxuxta* artista. Oso-oso gustura aritu gara horiekin guztiekin; proiektuaren parte dira.

Disko fisikoa sanpedroetarako iritsiko da eta gure asmoa da aste horretan bertan jasotzea eskaerak. Horrez gain, argazkien bidez erakutsiko dugu euskarri fisikorekin barrualdea eta letrak nola diseinatu dituen Sarak.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus atarian

CEPA LASARTE HHI

2026-2027 ikasturtea

MATRIKULA ZABALIK

ekainaren 22tik 26ra

- **Hezkuntza orokorra**
(Irakurketa, idazketa, oinarrizko euskara, memoria lantzen, Historia...)
- **DBHko titulua**
- **Oinarrizko ingelesa**
- **Gaztelania atzerritarrentzat**
- **Irteera didaktikoak**



Deitu
hitzordua
eskatzeko!
943-37 64 43



KULTURA

"Urteak pasatzen diren heinean gero eta gehiago disfrutatuko dut"

OIHANE BELARTIETA GALARDI SORGIN DANTZAKO KAPITAINA

Sorgin Dantzarako egun gutxiren faltan, urduri sentituko dela badakien arren, iaz baino lasaiago dagoela aitortu du lasarteoriatar gazteak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Oriatik abiatu eta herria zeharkatu ostean Okendo plazan bukatuko den Sorgin Dantza bigarren gidatuko du Oihane Belartietak Galardi lasarteoriatarak. Berarekin elkartu gara iazko esperientziak galdetu eta aurtengoa nola ikusten duen jakiteko.

Iazko San Pedro Jaieko Sorgin Dantzan hartu zenuen kapitain izateko ardura. Nola gogoratzen duzu esperientzia hori? Zer sentitu zenuen aurretik, bitartean eta bukatu ondoren?

Oso ondo gogoratzen dut esperientzia hori, iazko San Pedro Jaia bereziak izan ziren niretzat. Txikitatik ikusi izan dudana dantza izan da eta azkeneko urteetan Mikel Eskisabelek eduki duen ardura hori mantentzea ohore bat izan da niretzat. Hori dena errazagoa izan zen, entsegu egunetan eman zizkidana aholkuek ahalbidetu zidaten egunean bertan lasaiago egotea. Oria auzotik Okendora bidean zehar asko disfrutatu nuen.

Ehun urte baino gehiagoko ekimena da Sorgin Dantza eta, iaztik, zu zara emakumezko aurreneko kapitaina. Horrek are gehiago ardu-

ratu zintuen iaz ala naturaltasunez bizi izan zenuen aldaketa?

Naturaltasunez bizi izan nuen noski. Niretzat ohore bat izan zen, baina batez ere ilusioz harturiko ardura. Betidanik sentitu dut Sorgin Dantza denona dela, baina emakume batek kapitain izateko ardura hartzeak ilusio handia egiten dit.

Jaietan zehar eta ondoren zer-nolako mezuak jaso zintuen familia, lagun, dantzari eta herritarrengandik?

Oso mezu politik eta hunkigarriak jaso nituen familia, lagun, dantzari eta herritarrengandik. Babes handia sentitu nuen, batez ere zortzikote nagusiko kideen aldetik. Askok zoriondu egin ninduten eta haiei ere ilusio handia egiten zien emakume gazte batek kapitain rola hartzea. **Gutxi falta da aurtengo jaietarako eta Sorgin Dantzarako. Horren guztiaren aurrean, nola zaude? Iaz bezala, lasaiago, are urduria-go...?**

Egun horretako urduritasunak beti egongo dira, aurten gainera entsegu batzuetara ezin izango dut joan [hilaren 7an elkarrizketatu genuen Oihane, ikasbidaiera joan aurretik; atzo, hilak

18, amaitu zituzten prestaketa saioak]. Egia da iaz baino lasaiago nagoela eta uste dut urteak pasatzen diren heinean gero eta gehiago disfrutatuko dudala kapitain izateaz.

Zein da Sorgin Dantzako kapitainaren lana eta ardura emanaldiak iraun bitartean?

Kapitainaren ardura zortzikotea tentuz mantentzea da eta emanaldian zehar egin beharrekoak dotore egitea.

Zortzikote txikiko kapitain izan zinen helduen taldearen gidaritza hartu aurretik. Asko aldatzen da talde batetik besterako perspektiba? Zertan, batez ere?

Bistan da heldutasuna nabari dela talde nagusian. Horrez gain, dantzari dagokionez dantzariak koordinatuagoak daude. Hala ere, txikien zortzikoteko kapitaina izateak asko lagundu dit gaur egungo segurtasuna izateko.

Noiztik parte hartu izan duzu Sorgin Dantzan eta nondik datorkizu ekitaldi horrekiko zaletasuna?

Txikitatik apuntatu izan naiz Sorgin Dantzan. Eskolak eta etxeokoe bultzatu izan naute herriko ekitaldi honetan parte hartzera. Oso txikia nintzenetik



Belartietak, pozarren, iazko Sorgin Dantzari ekin aurretik. TXINTXARRI


nire aita ikusten dut zortzikote nagusian, egun bereziak izaten dira horiek. Orokorrean, dantza egiteak asko betetzen nau eta horregatik jarraitzen dut honetan.

Iazko zehar, urteotako Sorgin Dantzetako une berezi gehiago gogoratzen dituzu? Hala bada, zein edo zeintzuk?

Urte asko izan dira dantzari moduan egin ditudan zortzikotean egon gabe, blusa grisarekin. Oroitzapen ederrak ditut eta modu desberdin batean

disfrutatzen nuen eguna, lagunekin. DBH 2. maila bukatu nuenean zortzikote txikian parte hartu nuen lehenbiziko aldiz beraiekin; egun hori go-goan dut oraindik.

"Dantza egiteak asko betetzen nau eta horregatik jarraitzen dut horretan"



DISEINU GRAFIKOA

INPRENTA
Offset eta Digitala

DISEINU EDITORIALA

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

gora San Pedro jaiak

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 1-2 pabilioiak · LASARTE - ORIA

943 370 738

info@antza.eus

www.antza.eus



SORGIN JAIK 25

Herri Baten Oihua!

Urteurren berezia ospatuko du aurten Sorgin Jaiak, 25 urte. Eta Lasarte-Oriako sorgin eta intxixuek jaietan ederki gozatzeko egitaraua antolatu dute

EKAINAK 25, OSTEGUNA

18:30EAN, SORGIN JAITSIERA Isla plazatik, Xaukena elektrotxararak girotuta.
20:00ETAN, TXUPINAZOA.
23:00ETAN, ERTZ ETA MARTE LASARTE musika taldeen kontzertua.
OSTEAN, KARAOKEA.

EKAINAK 26, OSTIRALA

16:30EAN, V. PATATA TORTILLA TXAPELKETA, Askatasunaren plazan.
19:00ETAN, ZUNBA SAIIOA Bojomarekin, Oriarte BHI parean.
21:00ETAN, BERTSO AFARI AUTOGESTIONATUA, Oriarte BHI eraikin parean, Earra bertso eskolak girotuta.
22:15EAN, BIDEOKLIPAREN ESTREINALDIA ETA PROIEKZIOA, Oriarte BHI parean.

EKAINAK 27, LARUNBATA

12:00ETAN, PALESTINAREKIN ELKARTASUNA. Haurrentzako tailerra, Porrotx eta Marimototsekin, Askatasunaren plazan.
13:00ETAN, TXISTULARIEN KONTZERTUA.
14:30EAN, HERRI BAZKARI GIROTUA.
17:30ETIK 19:30ERA, TRIKIPOTEOA MERHEZI taldeak girotuta.

20:00ETAN, MANIFESTAZIOA PRESOEN ALDE.

21:00ETAN, Gure Lasarte-Zikina DISBAUXA ETA RECLUSIÓN KONTZERTUAK, Ilargi taberna parean.

EKAINAK 28, IGANDEA

10:30ETIK 14:30ERA, SORGIN AZOKA, Okendo plazan.
15:15EAN, ORIAKO JAITSIERA. Okendo plazan batutako dira taldeak.
18:30EAN, KUKUKAREN EMANALDIA
20:00ETAN, Ekainak 28 MANIFESTAZIOA, LGTBIQ+FOBIAREN AURREAN, SAREA ETA ELKARZAINZA LELOPEAN.
02:00ETAN, ZATEKEEN ERROMERIA.

EKAINAK 29, ASTELEHENA

17:30EAN, DESAFIOA
19:00ETAN, ELEKTROPOTTOTTE.
23:00ETAN, MIKOSIS ETA RODEO taldeen kontzertuak.



BASOKO MAXUTA

ELECTRICIDAD
ARREGUI

600 85 75 86

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA

Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



Zapaiako
haizagailuak



HAIER hozkailua



Zutikako
haizagailuak



San Pedro Jai zoriontsuak igaro! Gora Lasarte-Oria!



KULTURA

"Jendea gure kantak abesten entzuteak sekulako ilusioa egiten digu"

ANE JIMENEZ ETA OIER TOQUERO ERTZ MUSIKA TALDEKO KIDEAK

Okendo plazako akelarrean ariko da Ertz musika taldea hilaren 25an. Emanaldiaren atarian, bi taldekide elkarrizketatu ditu TXINTXARRI-k

Maddi Noriega Zaldua

Hilaren 25an Okendo plazan kontzertua eskaintzeko gogoz dira Ertz musika taldeko kideak. Sorgin Jaia-ek gonbidatuta ariko dira herriko plaza nagusian, eta hori horrela, are bereziagoa sentitzen dute euren parte hartzea. Bost musikaririk osatzen dute taldea: Ane Jimenez Beltran, Oier Toquero Fadrique, Lander Jimenez Beltran, Urtzi Furundarena Martinez eta Leire Anabitarte Soroa. Azken hori ez da jaietako emanaldian izango ikasketak atzerrian egiten ari delako, eta bere lekuan ariko da Haritza Diaz de Guereñu. Horien guztien artetik, musika emanaldiaren harira, lehenengo biek hitz egin du TXINTXARRI aldizkariak.

Nola sortu zenuten Ertz? Eta nondik dator taldearen izena?

Oier Toquero: Txikitatik ezagutzen dugu elkar. Musika eskolan instrumentuak jotzen genituen, eta arratsalde batean entsatzeko geratu ginen. Gaztelekuko lokalatan hasi ginen probak egiten; gustatu zitzaigun, eta pixkanaka aurrera egin genuen. Ahotsa falta genuen, ordea, eta, hori horrela, Ane batu zen taldera.

Ane Jimenez: Aurretik Louh taldean aritu ginen. Talde hark

etenaldi bat izan zuen, eta denok faltan botatzen genuen musika egitea. Hori horrela, berriro ere musika taldearen biderei eustea erabakita sortu genuen Auskalo erromeria taldea. Gerora, Gaztea Maketa Lehiaketaren harira [2024ko abenduan parte hartu zuten], nik dagoeneko sortuta nituen abesti batzuekin lanean hasi, eta hortik sortu genuen Ertz. **O.T.:** Izenarena ez da gehiegi pentsatutako zerbait izan. Nolabait, erromeria taldearekin herri askotako ertzetan jo izan dugulako proposatu genuen, gustatu zitzaigun eta taldea hala izendatzea erabaki genuen.

Zerk bereizten du Ertz gainerako taldeengandik?

A.J.: Agian gure ezaugarri bereizgarriena da ezin garela sailkatu estilo bakar batean. Taldekide bakoitzak gustuko dituen musika eraginak ditu Ertzek, eta hori nabari da abestietan. Musikari bakoitzak bere gogoko musika estiloen arabera ukituak eman dizkio abesti bakoitzari.

O.T.: Kanta guztiak oso desberdinak dira elkarren artean. Batzuk lasaiagoak dira, beste batzuk bi-ziagoak, baina denok uzten dugu gure arrastoa abesti bakoitzean. Urtzik [bateria jotzailea], adibidez,

bateriaren erritmo aldatetekin jolastea gustuko du, baita nik gitarretan ukitu indartsuagoak sartzea ere; eta Landerrek haize instrumentuak txertatzen ditu askotan. Horrek nortasun berezia ematen dio taldeari.

Abesti propioak sortzen dituzue. Nolako da horien sorkuntza prozesua?

A.J.: Arestian esan bezala, Gaztea Maketa Lehiaketaren aurretik bagenuen materiala sortuta. Landerrek eta biok hainbat kanta idatzi genituen, eta taldekideei aurkeztu genizkien; guztion artean moldatu eta forma eman genien. Sariketarako prestatu genituen, baina gero ikusi genuen gustura ari ginela eta gehiago sortzen jarraitu nahi genuela. Hemendik aurrera etorriko direnak denon artean sortu asmo ditugu.

A.J.: Bai, hala da. Orain arte Anek eta Landerrek etxetik ekarri izan dituzte, eta taldean landu ditugu gero. Aurrera begira, berriak sortzeko prozesua gehiago partekatu nahi dugu.

Duela gutxi 'Bidaia' diskoa kaleratu duzue. Nolako izan da esperientzia hori?

A.J.: Aurrena, aipatu dugun maketa lehiaketara kantuak aurkezteko Oierren etxean grabatu ge-



Bost kidek osatzen dute Ertz musika taldea. ERTZ

nituen maketa batzuk, eta gerora eman genuen horiek estudioan grabatzeko pausoa. Higain Estudio Haritz Harreguyrekin jarri ginen harremanetan, eta haren baiezkoa jasota hasi ginen lan horrekin. Oso eskertuta gaude berarekin; lehen unetik emandigu erabateko babes eta laguntza. **O.T.:** Prozesua oso polita izan da. Anek entseguetara ekarritako bozetoetatik etxean maketak egin eta azkenean abestiak estudioan grabatzea ederra izan da. Oso pozik gaude emaitzarekin. Oso berezia izan zen estudioko lanaren ostean gure abestiak grabatuta entzutea.

A. J.: Oso ederra, bai. Grabatutakoa entzuterakoan pentsatzen genuen 'benetan hau gurea da?'. Ilusio handia egin zigun.

Zer harrera izan du lanak?

O.T.: Espero genuena baino askoz handiagoa. Guk, batez ere, gure lana bilduta edukitzeko asmoz

egin dugu, baina ikusi dugu, guk bezala, jendeak ere gustuko duela, eta horrek izugarriko poza ematen du.

A.J.: Duela gutxi Zabaleta auzoko festetan jo dugu, eta jendea gure kantak abesten entzun genuen. Une horretan konturatu ginen abestiak ezagutzen dituela. Sekulako ilusioa egiten digu jendea gure kantak abesten entzuteak. **Sorgin Jaietan Okendo plazan ariko zarete. Herritar gisa zer esan nahi du zuentzat bertan aritzeak?**

A.J.: Oso berezia da. Auskalorekin jo izan dugu, baina oraingoan gure kantekin ariko gara. Herriak gu aukeratzea eta Ertzen musika entzuteko interesa erakustea oso polita da.

O.T.: Agian jendeak erromerieta-ko errepertorioa gehiago ezagutzen du, baina gure kantu propioak entzun nahi izatea motibazio handia da guretzat. Eskertuta gaude Sorgin Jaia-ekin.

aldika productos selectos



ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa



Ondo pasa San Pedro Jaietan! Gozatu!

Industrialdea, 19-20 LASARTE-ORIA • Tel: 943-37 70 89
aldika@aldika.com • www.aldika.com





GIZARTEA

Mende laurdeneko akelarrea, iruditán

Sorgin Jaien bilakaera aztertzen ari gara '25 urte, 25 sorginkeria une' serie berezian. Hemerrotekan topatutako argazki ugarietatik batzuk ekarri ditugu orri hauetara. Gainerakoak gure atari digitalean dituzue



2003-2005 Sorgin Jaiak mugikorrek izan ziren. Kale Nagusira eramandako Kamioi Rock-ak arrakasta handia izan zuen. TXINTXARRI




2001 Txosnak erdigunean jartzearen aldeko agerraldi jendetsua. TXINTXARRI



2002 Sagardotegi kaleko kiosko zaharra izan zen txosna gunea. IGOR CASTRO



2006-2009 Anbulategi zaharrekoa (Hipodromo etorbidea) izan zen sorginen aurreneko gunea egonkorra. TXINTXARRI



Aukera beganoa dugu!

TABERNA

Buenetxea

KAFETEGIA

FESTETAKO MENU BEREZIA **25 €**

• Ogitartekoak • Hanburgesak
• Sandwich-ak • Entsaladak
• Bakailao • Txuleta

RESPECTUZ JOKE

DASTATU ERE:

• Batido naturalak • Koktelak
• Gin-tonic bereziak
• Mojitoa • Kaipiroska

Ondo pasa HERRIKO JAIETAN!!

Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria ! Tel. 943-36 95 08

bugati ERRETEGIA

Ikatz-brasan egindako oilaskorik onena

UDA ORDUTEGIA

Asteartetik ostegunera
18:30etik 23:30era

Ostirala, larunbata eta igandeak
12:00etatik 23:30era

ONDO PASA SAN PEDRO JAIK!

Pº de Arrapide, 74 • 20160 Zubieta (Donostia)
☎ 943-37 76 62 ✉ bugatierretegia@gmail.com 🌐 www.bugatierretegia.com



2010-2011 Sorginen enegarren duintasun erakustaldiak izan ziren bi urte horietan Loidibarren inguruko eremuan aurrera eramandako festa alternatiboak. Okendoren aurreko geltokia izan zen. TXINTXARRI



2012-2019 Urtetako aldarria eta ametsa bete zuten, akelarrea Okendo plazara eramanda; herriaren bihotzera. TXINTXARRI

2020-2021 Moldatu bai, baina pandemiak ez zituen SorGIN JAIAK erabat eten. TXINTXARRI



2022-2025 Pandemiaren osteko SorGIN JAIAK ere aldarriz beteak eta jendetsuak izan dira. TXINTXARRI

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

● IBILGAILUAK

- Motozikletak
- Automobilak
- Autokarabanak
- Furgonetak
- Kamioiak

● MERKATARITZA

- BIZITZA ETA ERRETIROAK
- OSASUNA
- ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK

● ERANTZUKIZUN ZIBILA

- ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
- INBERTSIOAK
- PYMEAK...

Ganbo kalea, 1 LASARTE-ORIA - Tel.943-36 22 75 & FAXA: 943-37 24 13

Gora Lasarte-Oria!



Osasun gida 2026

Fisioterapia



Ibaiondo

- 30 urte zuen osasuna zaintzen.
- Esperientzia eta profesionaltasuna.
- Diagnostikoan adituak.

Ordua hartzeko: 943-37 03 06

Ola Kalea, 12 - behea, ezkerre
20160 Lasarte-Oria

Osasun zentroa



ZAINQI

| FISIOTERAPIA | ERIZAINNTZA | DIETETIKA |
| AKUPUNTURA | TERAPIA NATURALAK |

David Egizabal | Slawomir Sulik

www.zainqi.eus

611 09 20 20 Juan XXIII plaza

Fisioterapia



PAGOVA
Patricia Gonzalez Belmonte

- Osteopatia
- Masajea
- Drainatze linfatikoa

Tel.: 619 11 10 89

patriciagonzalez.pagoa@gmail.com
Pablo Mutiozabal 2, 1º 3. gela
LASARTE-ORIA

Fisioterapia



ene
FISIOTERAPIA

Oihane Labayen Zudaire
684808484

FISIOTERAPEUTA
Arreta integrala.
Zoru pelbikoan eta
ariketa terapeutikoan
espezializatua.



Hartu hemen
zure hitzordua

Hortz klinikak



aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales

- Lehenengo kontsulta eta diagnostikoa doan
- Zure aurrekontuari egokitutako tratamenduak
- Doako urgentziarako zerbitzua gure pazienteentzat
- Errehabilitazioetan espezialistak
- Odontologia etikoa

Ola kalea, 10. Lasarte-Oria
943 366 377
www.dentalaldaz.com

R.F.S. 12024



PIZARRRO
HORTZ KLINIKA DENTAL

ODONTOLOGIA OROKORRA | ODONTOLOGIA
ESTETIKOA | KIRURGIA | ENDODONTZIA | PADI |
ORTODONTZIA | PERIODONTZIA | ODONTOLOGIA
PEDRIATIKOA | ZURIKETA | PROTESIA



IÑIGO DE LOIOLA, 9 BEHEA
LASARTE-ORIA TEL: 747 40 33 21

Fisioterapia



ARALAR
FISIOTERAPIA

- FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA
- MUSKULU-ESKELETOAREN EKOGRAFIA
- INDIBA ACTIV
- PILATES TALDE TXIKIETAN
- ESKU TERAPIA

Aralar Plaza 5, behea, LASARTE-ORIA
(+34) 747 48 50 28
www.aralarfisioterapia.com

Osasun gida 2026

*Zure osasuna esku onenetan,
Lasarte-Orian!*

Hurrengo gida UZTAILAREN 24an.
Parte hartu nahi baduzu, jar zaitez gurekin
harremanetan: 943-37 14 48 (106) / 646 82 44 66

XI. EUSKARAREN MARATOIA



HELDUENTZAT

16 €

HAURRENTZAT

13 €



ABANIKOA

6 €

 **SAN PEDRO JAIETAN**
EROSTEKO AUKERA:

- Ekainak 28 10.30-14.30
Sorgin Azoka (Okendo plaza)
- Ekainak 29 10.30-12.00
(Jalgiko terrazan)



EUSKARA

Euskararen suziria ere piztuko dute San Pedro Jaietan zehar

Urtero lez, hizkuntzaren presentzia eta garrantzia bermatzeko ekimenak antolatu ditu Ttakun Kultur Elkarteak festetarako, Lasarte-Oriako Udalarekin lankidetzan. Adin tarte guztietako herritarrek izango dute gozatzeko aukera



lazko bi zortzikoteetako kideak, Oria auzoan. Sorgin Dantza handik abiatuko da aurten ere. TXINTXARRI

Txintxarri

Euskararen gaur egungo egoeraz aritzen garenean eta bultzatzearen garrantzia aldarrikatzen dugunean bolo-bolo darabilkigu *piztu* aditza. Ez da kasualitatea urriaren 17an eta 18an ospatuko dugun 11. Euskararen Maratoiaren leloa *Piztu! Sugarra gu gara* izatea edota Euskalgintzaren Kontseiluak (milaka pertsonarekin batera) berriki Iruñean egindako Euskaltzaleon Martxa izeneko ekintzaren aurrekaria joan den urteko abenduko Pizkunde ekitaldia izatea. Ildo

horretatik, iristear diren San Pedro Jaietan euskararen suziria pizteko ekitaldiak antolatu ditu Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin lankidetzan. Hilaren 26an hasi eta 29an amaituko dira.

GURE PATXINTXIAK

65 urtetik gora dituzten eta herrikoak diren emakume eta gizon bana aintzatetsiko dituzte hilaren 26an, udaletxean, haurren txupinazoa jaurti eta gero. 12:30ean hasiko da ekitaldia eta

Ttakun KEko kideek jakinarazi dute zortzi hautagai proposatu dituztela aurten ekitaldirako. Erabiltzaile bakoitzak horietako biren alde bozkatu ahal izango du hilaren 22ra arte (astelehena). Irabazleak ondoren jakinaraziko dituzte. Hautagaiei buruzko informazio gehiago jaso dugu eskuineko orrian.

MAKARROI JANA

San Pedro Jaietako aurreneko bazkarirako jaki goxoa izango dute Lehen Hezkuntzako 3. eta



Atsobakarrerantz, kalejiran. TXINTXARRI



Sagardo freskoa ez da faltako. TXINTXARRI



Xumela koruko kideak gogotsu daude kantu jira aurrera eramateko. TXINTXARRI

6. maila artean ikasten ari diren gaztetxoek: makarroiak tomaterekin. Hilaren 26an elkartuko dira parte hartzaileak Okendo plazan, 13:00etan, eta ordu laurden geroago abiatuko dira bazkaltzeko tokira, Atsobakarrerako parkera. 14:00etan hasiko dira mahai tresnak astintzen. Ordu horretarako txartelak salgai daudela jakinarazi dute antolatzaileek eta 4 eurotan eros ditzaketela herritarrek, Ttakun KEren bulegoan (Geltoki kalea 4, behe), 09:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 18:00etara. Aste-

lehen goizetan eta ostiral arratsaldeetan ez dute harrera zerbitzurik ematen.

SORGIN DANTZA

Gure herriko festetako ekimen ikusgarri, kuttun eta historikoenetako bat da Sorgin Dantza, duela ehun urte baino gehiagotik aurrera eraman dutena. Iazkoa izan zen mugarri aipagarria, aurreneko aldiz emakumezko batek gidatu zuelako helduen zortzikotea Oria auzotik Okendo plazara arte: Oihane Belartietak. 11. orrian

2. Eskuko testuliburuen azoka

Adi!

DBH3 - DBH4 - BATX1 - BATX2

• Entrega eguna • DBH1,2,3 workbook erosi	EKAINA 22, ASTELEHENA 16:30 / 18:30
• DBH4 eta BATX1,2: Liburuak eta workbook erosi	EKAINA 23, ASTEARTEA 16:30 / 18:30
• Dirua jaso	EKAINA 24, ASTEAZKENA 16:30 / 18:00

ORIARTEKIDE
Guraso Elkartea
Tokia: Larrekoetxe eraikinean

Tintorería **Lizardi** Tindategia

Uistin kalea 6
LASARTE-ORIA
610 28 61 05
tintolizardi@gmail.com

**Mota guztietako ehunak garbitzen eta lisatzen
espezialistak (edredoiak, mantak, alfonbrak,
ezkontza soinekoak, jaunartzea...)**

ondo para festetan!



argitaratu dugun elkarrizketan kontatu digunez, aurten ere gogotsu dago erronkari ekiteko eta txikitatik bizitzen duen jardueraz disfrutatzeke.

Esan bezala, helduen zein hurren zortzikoteetako kideak eta atzetik jarraituko dituzten blusa grisdu dantzariak Oria auzotik abiatu eta Okendo plazara arteko ibilbidea egingo dute, 16:30etik hasita. 18:30ak pasatxo iritsiko dira helmugara eta azken dantzak enparantzan egin ostean udalaxekeo balkoitik jaurtiko duten txupinazoa gertutik ikusi eta entzungo dute.

KANTU JIRA

Hilaren 26a atzean utzita, hurrengo jarduera 29an egingo dute, San Pedro Egunean bertan, goizez. Sagardotegi kalean 11:30ean elkartuko dira Xumela koruko kideak eta inguruko kaleak alaitzeari ekingo diote. Urtero esan ohi dutenez, ekimena irekia da eta abestiak entzun bitartean edonor anima daiteke ibilbidea beraiekin egitera. Aurten, gainera, inoiz baino gogotsuago daude, azaroan ospatuko duten 20. urteurrenaren atarian.

SAGARDO DASTAKETA

Eta, egitaraua ixteko, 29an, arratsaldeko seietatik aurrera, herriko Buenabista, Saltsate, Solleanea eta Telleri baserrietako sagardo dastaketa egingo dute Okendo plazan, 18:00etatik aurrera. Botatzaile trebeek zerbitzatutako edariak uztartu ahalko dituzte, hala nahi dutenek behintzat, metro gutxitara Aterpeko merkatariek erreko dituzten sardinekin. Askari ederra egiteko aukera izango dute, beraz.



Gure Patxintxiak balkoira aterako dira berriro ere. TXINTXARRI

Zortzi hautagai eta bi txapel

Sanpedroen atarian, herritarren ahotan bolo-bolo dabilen galderetako bat da hau: nortzuk izango dira aurtengo Gure Patxintxiak? Ttakun Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak urteak daramatzate ekimena aurrera eramaten, herrikoak diren eta 65 urtetik gorakoak diren bi pertsona aintzatesteko asmoz. Bada, aurten ere martxan jarri dute txapelak eta zapiak jantziko dituzten emakumea eta gizona hautatzeko prozesua eta jakinarazi dute hilaren 22a izango dela bozkatzeko azken eguna, astelehena. Erabitzaila bakoitzak bi hautagairen alde bozkatu ahalko du gehien jota. Aurreneko egunetako emaitzak (hilaren 18ra arteko datuak bildu ahal izan ditugu, aldizkari hau inprentara bidali baino lehen) eskuetan, Maria Dolores Iturbe eta Ramon Moreno doaz aurretik baina oraindik egunak falta dira eta boto guztiak zenbatu ostean emango dugun albistea desberdina izan daiteke.

Gainerako hautagaiak Mertxe Altuna, Karmentxu Arana, Encarni Beltran, Pello Ormazabal, Joxe Mari Otegi eta Antonio Fernandez Cepeda dira. Zorte on horiei guztiei eta, kasu honetan, bozkatuenek irabaz dezatela!

Bozkak emateko atari digitalera sartu ahal izateko, sakelako telefonoa hartu eta eskanea ezazu azpiko QR kode hau, esan bezala, hilaren 23a baino lehen. Animatu eta parte hartu!




Patxintxi sariak 2026



BIDEO LAGUNAK

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK



ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA



Deskontu eta
beherapen handiak!



Ondo pasa
San Pedro
Jaietan!





GIZARTEA

Emanaldiz emanaldi eta ikuskizunez ikuskizun, jaietarako giroa berotzen ari dira

Motorzaleen rallya eta San Joan bezperako ekitaldia datoz, besteak beste

Txintxarri

Hilaren 26an hasiko diren San Pedro Jaiak lehertu aurretik ekitaldi ugari antolatu dituzte udalak eta zenbait eragilek, etorriko den guztiaren aurrekari gisa. Horietako batzuk izan dira, adibidez, ikasturtea ixteko Alboka Abesbatzak, Zero Sette Jai Band taldeak eta Udal Musika Eskolako ikasleek aurrera eraman zituzten kontzertuak. Bestalde, Biyak Bat adinekoen egoitzan mahai jokoen txapelketak egiten ari dira.

Jaietako egitarauan ez zetozen arren, San Pedro Jaien aurreko egunetako giroa berotu zuten baita ere Semblante Andaluz elkartearen 31. Rocioko Erromeriak eta Kukuka eskolaren 24. Antzerki eta Dantza Asteko emanaldiek.

Datozen egunetan arke ekimen gehiagoz gozatu ahalko dute lasarteoritarrek:

OSTIRALA 19-IGANDEA 21

LASARTE-ORIA

• **Topaketa** Scooter Club Euskadi elkarteak hamabigarrenez aurrera eramango du Vespa eta Lambretta etxeetako motorzaleen topaketa. Ez dira faltako ibilaldiak, kontzertuak, ibilgailuen erakusketak eta ongi pasatzeko bestelako jarduerak. Herrian barrena, hilaren 19tik 21era, goizetik hasi eta gauera arte.

LARUNBATA 20

LASARTE-ORIA

• **Emanaldia** Ikasturte bukaerako ikuskizuna emango du Erketz EDT dantza taldeak. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek. Okendo plaza, 19:00etan.

ASTEARTEA 23

LASARTE-ORIA

• **Ospakizuna** San Joan bezperako ekitaldia egingo dute: 21:30ean, dantzariak Andatza plazarentz abiatuko dira, udaletxetik. Iristean, dantza ugari egingo dituzte, Albokak eta Zero Settek girotuta. 22:00etan, sua piztuko dute.

OSTEGUNA 25

LASARTE-ORIA

• **Erakustaldia** Gimnastika saioa egingo dute Biyak Bat egoitzako kideek. Maialen Chourraut kiroldegia, 10:00etan.
• **Emanaldia** Biyak Bat koruko kideek kontzertua emango dute. Sarrera doakoa da. Ama Brigitarren komentua, 19:00etan.



Ama Brigitarren komentua lepo bete zuten Albokaren emanaldia ikusteko. TXINTXARRI



Zero Sette Jai Band taldeak igande eguzkitsua girotu zuen. TXINTXARRI




Aterpeak gonbidatzen zaitu:

SARDINA-JATEA

Ekainaren 29an,
18:00etan Okendo plazan

*Herriko merkatariek
jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*



Zurekin kontaktzen dugu!





Bigarren kontzertuan euren talentua erakutsi zuten Udal Musika Eskolako ikasle gazteenek. TXINTXARRI



Laukote bat, Biyak Bat egoitzan, partxisean jokatzeko. TXINTXARRI



Elizkizunarekin hasi zen erromeria igandea, Arantzazuko Ama parrokian. TXINTXARRI



Arantzazuko Ama parrokiatik Atsotakarako bidean dantzaldiak egin zituzten andaluziarrek. TXINTXARRI



Azkeneko emanaldi egunetan Kukuka eskolako dantzariak hartu zuten kultur etxeko ohol-tza. TXINTXARRI



Okendo plazan dantzatu zuten bazkari herrikoia egin eta gero. TXINTXARRI

ANTONIO URRUZOLA

Ondo pasa festetan!

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

Etor zaitez erakusketa ikustera!

Asteasuain poligonoa, 3. pabilioia USURBIL
Tel./Faxa: 943-37 64 15 | Mugikorra: 687 84 55 99
www.carpinteriaantoniourruzola.com

Ainhoa Egoña Golano

AES

Ile apaindegia

943-37 02 54
Blas de Lezo kalea, 5 behea

Ondo pasa festetan!

AZ PEI TIA

Blas de Lezo, 1
20160 LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 18 70
Fax: 943-36 21 79
mueblesazpeitia@gmail.com
www.mueblesazpeitia.com



GIZARTEA

"Osasungintzaren narriadura planifikatuaren aurka" mobilizatu dira

Hotz katearen akats bat tarteko, berriz txertatu beharko dituzte bost herritar

Txintxarri

Maiatz amaieran Donostian egindako agerraldiari jarraipena eman zioten atzo, hilak 18, gure herriko osasun zentro atarian. Kalitatezko Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformak egindako deialdiari erantzun zioten dozenaka pertsonak (bertan izan ziren LOOPA plataformako kideak ere) eta Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratua erakundeko Etengabeko Arreta Guneen egoera "gero eta larriagoa" dela deitoratu zuten. Horrekin batera, argi adierazi zuten ez dutela onartuko "osasungintzaren narriadura planifikatua".

Hotz katean arazoak

Bestalde, atzo albiste izen baita ere zentro horretan eta Bilboko Arangotikoan gertatu zena: txertoak tenperatura egokian man-

tentzeko hozkailuetako hotz kateen akatsaren ondorioz, hamazazpi pertsonari (horietatik bost, lasarteoriatarak) dosi ezegokiak eman zizkieten.

EH Bilduk atera zuen argitara gertatutakoa eta azalpenak eskatu zizkion Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari: "Ez dugu ulertzen txertoen kudeaketan

duela hilabete batzuk gertatutakoaren pareko zerbait jazo izana berriz ere".

Osasun sailburu Alberto Martinezek erantzun zuen, esateko dosi horiek jaso zituztenak ez daudela arriskuan eta berriz txertatuko dituztela hilabete barru. "Segurtasun neurriak" lantzen ari direla gehitu zuen.



Osasun zentro atarian mobilizatu ziren. TXINTXARRI

POLITIKA

Soziopolitika eta aisialdia

Jardunaldi politikoak egin zituen Buruntzaldeko GKSsk Hernanin, Astigarragan eta Lasarte-Orian. Etxebizitza eta egungo egoera soziopolitikoak izan zituzten hizpide aurreneko bi ekitaldietan. Gurean, aldiz, tailerrei egin zieten tartea eta giro ederran aritu ziren Andatza plazan. Gero, kontzertu akustikoaz gozatu zuten.



TXINTXARRI

EUSKARA

Kattalin Lizarraga, txapeldunorde



BERTSOZALE ELKARTEA

Euskal Herriko Eskolartekoko txapelketan lan bikaina egin du Earra! bertso eskolako ikasle Kattalin Lizarragak; txapeldunordea izan da, buruz buruko azken ariketa Unax Aizpurua saratarraren aurka jokatu ostean. Bi horiek eta beste 11 bertsolarik Arantzan jokatu zuten final handia, giro ederrean. Zale ugari bertaratu ziren saioaz gozatzera.

KULTURA

'Bullyngari Galga!' proiektua ondu dute Ihitten elkarteak kideek

Txintxarri

Bullyngaren kontrako protokoloak eta hura erazteko kontzientziazio handiagoa badago ere, adituek prebentzioan ipintzen dute arreta gunea. Eta enpatian, hots, parekoaren larruan ipini eta hark sentitzen duena sentitzeko gaitasunean. Hori horrela, ikus-entzunezkoen alorrean diharduen Lasarte-Oriako Ihitten elkarteak proiektu bat ondu du, Fagor Herrigintza lankidetzaren programak lagunduta: Bullyngari Galga!

Aipatu eragileko ordezkariak ohartarazi dute sortu dutena ez dela gida pedagogiko bat, baizik eta eskola jazarpena galgatzeko,

horren prebentziorako tresna bat.

Ikus-entzunezko edukiak

Eskola, aisialdi eta kirol talde, guraso elkarte zein haur eta gazteekin lan egiten dutenei zuzendua dago Bullyngari Galga! proiektua; guztiei jazarpena ekiditeko tresnak eta baliabideak eman nahi dizkie. Horretarako, euskaraz, gertuko erreferentziak eta erreferentziak erakusten dituzten ikus-entzunezko edukiak biltzen dituen egitasmoa.

Hori guztia kontsultatu nahi duenarentzat, ondorengo atari digitala sortu dute: <https://bullyngarigalga.eus/>.



Aseguru artekaritza

Aseguru mota guztiak.
Eskatu aurrekontua!

Gora San Pedro Jaiak!

Uzturre plaza, 8 behea
LASARTE-ORIA
Tel.: 943-37 11 18
WhatsApp: 672 23 83 01
pikabea@pikabeaaseguruak.com
www.pikabeaaseguruak.com



SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Ondo pasa festak!

Pintore kalea, 5 Lasarte-Oria | Tel: 943-36 14 71 | www.sugatecocinas.com



Gora Lasarte-Oria!
Gora San Pedro Jaiak!

Geltoki kalea, 3
MUGIKORRA: 600 52 39 88
LASARTE-ORIA



'Aureskua' dantzatu zioten Amaia Gonzalez Caballerok eta Amaia Usandizagak. TXINTXARRI



Isaac, txapela jantzi berritan. TXINTXARRI



Ekitaldiaren antolatzaileek hitz ederrak eskaini zizkioten omenuari. TXINTXARRI



Emanaldi ugari egin zituzten. TXINTXARRI



Bizipozaren koloretako zapiak. TXINTXARRI



Behingoagatik, talde argazkia ez zuen Isaac-ek berak atera. TXINTXARRI

GIZARTEA

Azken zortzi urteetan "herriaren begia eta bihotza" izatea eskertu diote

Jaizkibel plazara ezertxo ere jakin gabe iritsi denean sorpresa ederra jaso du Isaac Farre Rico argazkilaria: dozenaka bizilagunek eta eragileetako ordezkariak omenaldi goxoa egin diote euren "oroitzapenen zaindariari"

Iñigo Gonzalez Sarobe

Zortzi urtez argazki kamerarekin hara eta hona ibili ostean, eguneroko jarduna etetea eta martxa lasaiagoan aritzea erabaki du berriki Isaac Farre Rico argazkilaria. Denbora horretan guztian kudeatu duen 'Lasarte-Oria Orain' atari digitalean erabakiaren berri eman ostean ahoz aho zabaldu da eta dozenaka herritarrek jasotakoa itzultzeko ekitaldia egin zuten hilaren 11n, protagonistari sorpresa ederra emanda. Makina bat alditan gisa horretako ekimenak

argazkitu eta gero, oraingoan beste aldean egotea egokitu zitzaion, hunkituta eta eskertuta.

Sorpresari oraindik buelta eman ez zionean, Aureskua dantzatu zioten Amaia Usandizagak eta Amaia Gonzalez Caballerok, estilo euskalduna eta andaluziarra uztartuta. Pairean zuten omenuari eskaini zizkioten emanaldietako aurrena izan zen. Jarraian atera ziren plaza erdigunera LOZET, Jalgune, Lasarte Ritmo Activo eta Bizipoza elkarteetako kideak, baita dantzara animatu ziren bizilagunak ere.

Garcia

AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ

Tel: 609 47 94 78

info@garciabus.com - www.garciabus.com



San Pedro Jai ezin
hobeak igaro!

- Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu proposak
- Bestelako zerbitzuak



Lehen bi irudietan, LOKE Judo sailekoen erakustaldiko momentuak. Beste bietan, LOKEko gimnastak tapizean koreografiak eskaintzen. TXINTXARRI

DENBORALDI AMAIERA

LOKEko judokek eta gimnastek emanaldi ederrak, ikasturteari agur esateko

Ikasturtean ikasitakoa erakutsi dute Maialen Chourraut kiroldegiko kantuan

Txintxarri

Kirol denboraldia amaitzear dela, Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) judokek eta gimnas-

tek ikasturte amaierako emanaldiak eskaini zizkieten euren nideei, hilaren 12an eta 13an, Maialen Chourraut kiroldegian.

Lehenak judo saileko kideak izan ziren eta euren tatamia izan zen arratsalde batez kiroldegiko kantxa.

Agurra bereziarekin hasi zen erakustaldia, dantza egin bitartean, giltzak egin baizizkien bi judokei dantzariak.

Ostean taldeko hurrek zein gazteek giltzak, orotariko jauziak... egin zituzten eta borrokak ere ikusi ahal izan ziren.

Egindako guztiarekin txundituta, publikoak gogotik egin zuten txalo.

Egun bat geroago, hilaren 13an arratsaldean, zirkuko pista bihur-

tu zuten kiroldegiko kantxa eta tapiza elkarteko gimnastek.

Soka, uztaia, mazoak... tresna ezberdinekin edota esku hutsik urtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten tapizean. Pasioz eta alaitasunez, hainbat koreografia ere egin zituzten bakarka zein taldeka. Eta argazki alaiak ateratzeko gune bat ere izan zuten.

Harmaila leporaino beterik zegoelarik, publikoak emanaldiaz gozatu zuten.

FUTBOLA

Racing eta Texas Lasartearra, Jose Martija torneoan garaile

Txintxarri

Hamabi futbol taldeetako harrobiko kideak bildu ziren hilaren 13an Michelin kirol gunean. Bederatzigarrenez, Jose Martijaren omenez bere ikasleek eta senideek antolatutako torneoak jokatu zen. Nahiz eta bero sargoria egon, ikusleak kirol gunea gerturatu ziren eta partida zirrargarriak ikusi ahal izan

zizuten; alebinek euren balioa erakutsi zuten.

Lehia hasi baino lehen, Errege Kopa irabazitako Realeko jokalarari Jon Martinek eta Lander Astiazaranek jasoko zuten omenalditxo bat.

Derbia, Europa Leaguean

Ostean, multzoko faseari eman zioten hasiera. Taldeek hiruna

partida jokatu zituzten eta euren onena eman zuten arratsaldeko lehia nagusian sailkatzeko.

Añorga, Euskalduna Andoaindarra, Real Sociedad, Antiguoko, Racing, Martutene, Billabona eta Eibar izan ziren Champions Leagueko sailkatuak.

Kanporaketaz kanporaketa Añorga eta Racing iritsi ziren finalera; Añorgak penaltietan gaituratu zuen Antiguoko eta kantabriarrek 7-0 irabazi zioten Eibarri. Finala estua izan zen eta Racingek 2-3 gailenduta eraman zuten saria.



Torneoko neurketa bat. TXINTXARRI

Europa Leaguean, aldiz, Ostadar SKT-Real Union eta Texas Lasartearra CF-Sanse izan ziren kanporaketak. Lasarte-Oriako taldeak finalean lehiatzeko gogor aritu ziren. Lehen finalerdian, penaltietara iritsi ziren eta urdin-beltzek lortu zuten aurrera egitea. Texasek, aldiz, 3-1 garaitu zuen Sanse. Beraz derbia izan zen lehiaketa finalean eta zuri-urdinak izan ziren nagusi, 3-1.

Antolatzaileak pozarren daude txapelketak duen harrerarengatik eta urtero lehiaketa handitzen doalako.



Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

Zure iragarkia jarri nahi duzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66

**INFORMATIKA
MARTINEZ MULTIMEDIA**



Ondo pasa San Pedro jaietan!

Ezagutu gure eskaintzak, beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2 behea - Tel/faxa: 943 36 05 91
Lasarte-Oria



ARRAUNA

Espainiako txapela ere bai

Aiora Belartietia herritarra kide duen Donostia Arraun Lagunak-ek garaipena erdietsi zuen Espainiako txapelketan. Hilaren 13an eta 14an, Meira-Moañan (Galizian) lehiatu zen traineruen lehia eta nagusi izan zen, bai kanporaketan, baita finalean ere. Emakumezko talderik onenaren Iberdrola saria ere eskuratu zuen.



DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK

PIRAGUISMOA

Chourraut, bosgarren Augsburgeko Munduko Kopako K1 proban

Alemaniano Augsburg kanalean Munduko kopako hirugarren jardunaldia jokatu zen hilaren 12tik 14ra. Maialen Chourraut herritarrak K1 eta Kayak Kros lehiatan parte hartu zuen eta lehen modalitatean, finalerako sailkatu zen herriko palista; bosgarren amaitu zuen.



RFEPIRAGUISMOA

TXIRRINDULARITZA

Martin, bigarren erlojupekoan

Kadete mailako erlojupeko Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketak lehiatu ziren, hilaren 13an, Bergaran. Andoaingo Txirrindulari eskolako Xabat Martin herritarrak txapeldunorde titulua lortu zuen. Unax Guisado eta Dario Gomez herritarrek ere parte hatu zuten lehiaketetan.



MA MARTIN

ARETO FUTBOLA



Gazteen taldea. EGUZKI AF

Eguzkiko gazteek, ezin Euskal Kopa Lasarte-Oriara ekarri

Ez zen posible izan Eguzki Lekuona tailerrak taldeak ezin izan zuten Euskal Kopako finala jokatu. Hilaren 13an, Makaxen aurkako finalerdia jokatu zuen gazteen mailako ordezkariek. Erritmo handiko partida izan zen eta hori-beltzak aurretik joan ziren arren, arauzko denbora seina amaitu zen. Penaltietan erabaki zen garailea eta Makaxeko jokalariek ongi asmatu zuten; 4-2 irabazi zuten.

Emaizta alde batera utzita, Eguzkiko prestatzaileak pozarren daukete gazteek urtean zehar egindako lanarengatik, "are gehiago lehen urtekoak direla kontuan izanda".

ZALDI LASTERKETAK

Lehia estuek eman diote hasiera Udako denboraldiari

Donostiako Hipodromoak hasiera bikaina eman zion 2026ko udako denboraldiari, hilaren 11n.

Eguraldi ona lagun, lehiakortasun handiko arratsaldea bizi izan zen Zubietako pistan.

Faboritoez ez zuten huts egin eta borroka estuak izan ziren azken zuzengunean; bi lasterketetan argazkia erabili behar izan zen garailea erabakitzeko.

Orain uztailaren 5era arte, etenaldia izango da. Orduan hasiko dira igande arratsaldetako saioak.



Lehietako bat. DABID ARGINDAR

ATLETISMOA

Valenciarekin, klubena garaile

Espainiako Kluben arteko Ligako Ohorezko mailako finala jokatu zen hilaren 13an Iruñean (Nafarroa). Naroa Furundarena (Dip. Valencia CA) eta Nerea Eugi (Atletico San Sebastian) herritarrak izan ziren lehiatzaileak. Furundarenaren taldeak eraman zuen garaikorra eta donostiarrak, aldiz, bosgarren izan ziren.



RFEA/SPORTMEDIA

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

ondo pasa jaiak!

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia ☎ 943 105 205

Puntako teknologia zure autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

Osakidetzarekin hitzarmena



Eskualdeko zenbait ordezkari politikok eta Euskara teknikariek Andoaingo Bastero kulturgunean zozkatu dituzte 2025ean parte hartu dutenen sariak. ANDOAINGO UDALA

EUSKARA

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ikasi eta azterketa gainditzea bultzatzen jarraitzen dute

Zozketa bateratua azkenekoz egin dute eskualdeko udalerriek eta horietako gehienak dirulaguntza zuzenak emateko bidea urratzeko prest daude. 69 izan dira 2025ean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egin eta gainditu dutenak

Buruntzaldea

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ikastea eta azterketa euskaraz egitea bultzatzeko asmoz, 2010ean jarri zuten martxan Gidabaimena Euskaraz egitasmoa Buruntzaldeko sei udalek: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil. Hamasei urteotan lankidetzan aritu dira eskualde horretako autoeskolekin eta tarte horretan 1.300 herritar baino gehiagok parte hartu dute eta zenbaitek zozketa bidezko sariak jaso dituzte.

Iaz 69 herritar izan ziren gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egin eta gainditu zutenak: zazpi Andoain, zortzi Astigarragan, 28 Hernanin, sei Urnietan eta hogeitaz Usurbilen. Zozketa ekitaldia Andoaingo Bastero kulturgunean aurrera eramane zuten eta bertaratu zirenek jakinarazi

zutenez, aurtengoa izango da zozketa bateratua egin duten azkeneko aldia. Izan ere, azken urteetan parte hartzea jaisten ari dela kontuan izanda, uneotan dirulaguntza zuzenak emateko bidea urratzeko prest daude udal gehienak, bakoitzak bere erara. Sistema hori ezartzen aitzindaria Lasarte-Oriako Udala izan da eta horregatik ez zuen ekitaldi horretan parte hartu.

Arestian aipatutako ekitaldi horretan 400 euroko zortzi sari zozkatu zituzten eta hauek izan ziren irabazleak: Maren Jauregi Ugartemendia eta Nahia Gorostidi Lopez (Andoain); Enaitz Isasti Zabaleta (Astigarraga); Eki Sanchez Balerdi, Endika Rekondo Murua eta Ane Livi Santacruz Elozegi (Hernani); Hegoi Lizaso Lopez (Urnieta); eta Saray Hernandez Etayo (Usurbil). Horietako zenbaiten

lekukotzak jaso ditugu eskualdeko zatiduran.

Irabazleak iragartzearekin batera, egitasmoaren arduradunek eskerrak eman zizkieten bat egin duten eskualdeko autoeskolei: Andoaingo Bengoetxea eta Vallina CAP; Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendi; eta Urnietako zein Usurbilgo Solozabal.

Material "eguneratua eta oso txukuna"

Gidabaimenak euskaraz egitasmoa Euskadiko Autoeskolen Federakuntzak koordinatu eta

1.300


PARTE HARTZAILE BAINO GEHIAGO izan dira eskualdeko sei udalerriek egitasmoa 2010ean martxan jarri zutenetik

kudeatzen du, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Hamasei urteko ibilbideko mugarrietako bat 2024an ezarri zuten: webgunea (*gidabaimena.euskaraz.eus*) berritzeaz gain materiala osatu eta eskuliburuak argitaratu zituzten A, A1, A2, AM, B, C, C1, D, D1 eta E baimenetan. Atari digital horretan jaso zuten baita ere euskarazko eskaintza duten autoeskolen mapa; 160 zentro baino gehiago ari dira horretan Euskal Autonomia Erkidegoan.

Eta webgune horretan saltseaten dutenek topatuko dute baita ere eskaintza erakargarri bat, izan ere, gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz prestatu eta egiten dutenen artean bi ziklotomotor elektriko zozkatuko dituzte abenduaren 3ean, Euskararen Nazioarteko Egunean. Antolatzaileek jakinarazi dute azterketa teorikoa euskaraz egin dela egiaztatzeko ziurtagiria eskatuko dutela. Zozketan parte hartzeko unean eginda ez dutenek hiru hilabete izango dituzte hori aurkezteko aipatu zozketaren ondoren.

EUSKARA

"Erosoa eta naturala" egin zaie honetarako ere euskaraz ikastea



Hegoi Lizaso Lopez urnietarra izan da 2025eko ekitaldiko sarrituetako bat. URNIETAKO UDALA

Buruntzaldea

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egin eta gainditu izanagatik sarituak izan diren hiru ikasleekin hitz egin dugu prozesuan zehar nola sentitu diren eta urratsa zergatik egin duten jakiteko. Endika Rekondo Murua hernaniarra, Hegoi Lizaso Lopez urnietarra eta Saray Hernandez Etayo usurbildarra animatu dira bizitako kontaktera.

Hiruen ama hizkuntza da euskara eta betidanik ikasi dute hizkuntza horretan. Beraz, "erosoa eta naturala" egin zaie prozesua mintzaira horretan burutzea eta gustura jardun dira. "Egia da gidabaimena ateratzea erronka dela eta ikasteari denbora eskaini behar zaiola baina euskaraz egiteak lagundu dit edukia hobeto ulertzen eta konfiantza gehiagorekin prestatzen", aitortu du Rekondok. Hernandez ere ederki moldatu da, nahiz eta onartu duen "kontzeptu tekniko batzuk" barneratzea zertxobait kostatzen zaiola.

Gidabaimena atera nahi eta hizkuntza aukeratzera zaila izan zela zehaztu du. "Ingurukoari ari naiz atal teorikoa euskaraz egitea aholkatzen, batez ere, txikitako hizkuntza hori dutenei. Niretzako, txikitatik erabilitako hizkuntzan azterketa hori egitea errazagoa izan da eta beste askorentzat ere horrela izan daitekeela uste dut", azpimarratu du Lizasok.



EUSKARA

Dirulaguntza zuzena emateko bidea urratzen hasi dira eskualdeko udalerriak

Euskara "eguneroko esparru praktikoetan egon dadin erraztea" da helburua

Buruntzaldea

Hamasei urteko ibilbidea urratu duen Gidabaimena Euskaraz egitasmoari beste buelta bat eman eta parte hartzea sustatze aldera, dirulaguntza zuzenak ematen hasiko dira Andoain eta Lasarte-Oria. Aurrera begira, aukera hori ezartzea aztertuko dute datozen hilabeteetan Astigarragak eta Hernanik ere. Era batera edo bestera izanda ere, sei udalerrietako ordezkariak argi utzi dute erraztasunak ematen jarraituko dutela gidabaimenaren atal teorikoko azterketa euskaraz egin nahi duten herritarrei.

Sistema hori ezartzen aitzindaria Lasarte-Oriako Udala izan da. Erakunde horretako Euskara zinegotzi Estitxu Alkortaeren hitzetan, neurri hori udalak hizkuntza normalizaziorako duen strategiaren barruan sartzen da, euskara "eguneroko esparru praktikoetan ere egon dadin errazteko". Gaineratu du azterketa teorikoa euskaraz ikasi eta egiteak "espazio berrietan hizkuntzaren erabilera indartzen" laguntzen duela.

Hori horrela, Lasarte-Orian erroldatuta dauden eta gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen

dutenei 500 eurora arteko beka ematea aurreikusten du ekimenak. Horrek esan nahi du, udalak azterketa teorikoaren matrikularen kostua ordainduko duela, prestakuntza prozesu horretan hizkuntzaren erabilera bultzatuta.

Udalerri horretako BideOn eta Mugica autoeskoletan ongi baloratu dute egitasmoa. Formazioa hizkuntza bat baino gehiagotan eskaintzeak dakarren ahalegina azpimarratu dute, baita "ikasleentzat euskarazko baliabideak izatearen garrantzia" ere. Era berean, esan dute gisa horretako ekimenek hezkuntza eta lan-



Lasarte-Oriako Udala izan da sistema berriaren aitzindaria. TXINTXARRI

bide esparruan hizkuntzaren erabilera normalizatzen laguntzen dutela.

Andoainek ere egin du urratsa eta zehaztu ditu dirulaguntza zuzenak emateko baldintzak. Bi udalerri horietako ordezkariak

eskatuko dituztenen gainekoak jaso ditugu azpialdeko koloretako koadroetan: diruz lagunduko dutena; eskatzaileek bete beharko dituzten baldintzak; epeak eta eskaera moduak; eta ordainketa kronologia.

Zer lagunduko dute diruz?

Gidabaimenaren atal teorikoaren matrikularen kostua (AM, A1, A2 eta B lizentzien azterketa egin eta gainditzea).

Andoainen: Gastuaren % 50a, gehienez 180 euro eskatzaile bakoitzeko.

Lasarte-Orian: Gehienez ere 500 euro pertsonako.

Bete beharreko baldintzak

Andoainen edo Lasarte-Orian erroldatuta egotea.

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atera izana frogatzea egiaztagiri bidez.

Udalekin zorrik ez izatea.

Epeei eta eskaera moduei buruz

Andoainen: irailaren 14tik urriaren 30era (biak barne).

Lasarte-Orian: urtarrilaren 1etik irailaren 30era (biak barne).

Beharrezko agiriak: eskaera orria, matrikularen ordainagiria, atal teorikoa gainditu izanaren agiria eta kontu korrontearen titulartasun ziurtagiria.

Ordainketa kronologia

Andoainen: behin-behineko ebazpena azaroaren 18an aterako dute; behin betikoa, aldiz, abenduaren 17an. Abenduan ordainduko dute dirua.

Lasarte-Orian: eskaerak aurkeztutako epea bukatzean, baldintzak betetzen dituztenei ordainketa bakarrean pagatuko diete urtea amaitu aurretik.

Eskualdeko beste udalerrietan, zer?


Buruntzaldea osatzen duten sei udalerrietatik gehienak prest daude dirulaguntza zuzenak emateko bidea urratzeko, bakoitzak bere erara. Hernani eta Astigarraga ari dira aukera hori aztertzen eta informazio gehiago emango dute datozen hilabeteetan. Modua zeinahi izanda ere, denek segiko dute erraztasunak ematen.

ZOZKETA GIDATU EUSKARAZ

@GIDABAIMENAK_EUSKARAZ



gidabaimenakeuskaraz.eus





KOMIKIA

UDA IRISTEKO PRESA



ZORION AGURRAK



Lorea
Zorionak Lorea zure 15. urtebetetzean, ama, aita, eta Oihanaren partez. Asko maite zaitugu!!!



Iker
Ongi etorri hirugarren solairura! Kirolari, irakasle, eta lankide fina! Udana paregabea igaro dezazula! Zorionak Tkakuneko lankideen partetik.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 19	KNIESE
LARUNBATA, 20	ACHA-ORBEA
IGANDEA, 21	ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 22	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 23	LASA
ASTEAZKENA, 24	GIL
OSTEGUNA, 25	ACHA-ORBEA
OSTIRALA, 26	KNIESE
LARUNBATA, 27	DE MIGUEL
IGANDEA, 28	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 29	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 30	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 1	GIL
OSTEGUNA, 2	LASA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO

22:00etatik 09:00etara
 CASTILLA-LARBURU farmazia
 Urbieta kalea 7, / 94-55 29 41



Hurrengo TXINTXARRI,
 SANPEDROEN ONDORENGO BEREZIA
Uztailaren 3an KALERATUKO DUGU



JAIEN JARRAIPEN BEREZIA

www.txintxarri.eus-en



HIRIBUSA



GAUTXORI Hiribusa



Ekainak 26, 27 eta 29

Joakina Enea	Anbulantegia	Kale Nagusia Jubilatuetak II	Antxisu
23:10	23:24	23:31	23:39
23:50	0:04	0:11	0:19
0:30	0:44	0:51	0:59
1:10	1:24	1:31	1:39
1:50	2:04	2:11	2:19
2:30	2:44	2:51	2:59
3:10	3:24	3:31	3:39
3:50	4:04	4:11	4:29

Ekainak 28

Joakina Enea	Anbulantegia	Kale Nagusia Jubilatuetak II	Antxisu
0:30	0:44	0:51	0:59
1:10	1:24	1:31	1:39
1:50	2:04	2:11	2:19
2:30	2:44	2:51	2:59
3:10	3:24	3:31	3:39
3:50	4:04	4:11	4:29
4:30	4:44	4:51	5:09
5:30	5:44	5:51	6:09

Ekainak 30

Joakina Enea	Anbulantegia	Kale Nagusia Jubilatuetak II	Antxisu
23:10	23:24	23:31	23:39
23:50	0:04	0:11	0:19
0:30	0:44	0:51	0:59
1:10	1:24	1:31	1:39

Autobusa gelditzeko eskatu daiteke
ibilbidearen edozein puntutan, betiere bideak
horretarako aukera ematen badu.

ESKELA

TXINTXARRI eskelak:
zabalkunde handiena Lasarte-Orian

ESKELAK JARTZEKO:
943 37 14 48 edo 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus
Osteguna 16:00ak arte jasotzen ditugu.

PREZIOAK:
Eskela mota bat TXINTXARRI Paperean + txintxarri.eus-en:
125 € (+ 21% BEZ).

IRAGARKI SAILKATUAK

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN HARTU

Lasarte-Orian gela bat alokatu nahi ditut uzta-
laren 15etik abuztuaren bukaerara arte (euskal-
duna, Madrilan lan egiten duen pertsona). Ha-
rremanetako zenbakia, 687 35 50 95.

LANA

ESKAERA

Emakumea lan bila. Etxeko lanetarako, adineko
pertsonak zaintzeko, bulegoak garbitzeko...
Externa moduan. Gizarte eta Osasun Laguntza-
ko Ikastaroko Profesionaltasun Agiria dut. Es-
perientzia. Edozein ordutegitan lan egiteko prest
nago, gauzez ere bai. Harremanetako zenbakia,
676 28 22 06.

OHARRAK

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48
publizitatea@ttakun.eus
www.txintxarri.eus/sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Oriarteko azoka

Hilaren 22tik 24ra bigarren es-
kuko liburuen salerosketa egin-
go dute Oriarte Larrekoetxe
eraikinean, DBH 3. mailatik hasi
eta Batxilergoko 2. ikasmilian
ari direnentzat. Hilaren 22an
izango da entrega eguna 16:30etik
18:30era. Bestalde, DBH1-3 mai-
letakoek Ingelera ikasgaiko
Workbook-a erosi ahalko dute.
Hurrengo egunean, toki eta ordu
berean, aipatu liburu hori eta
beste asignatura batzuetakoak
eskuratuko dituzte DBH4 eta
Batxilergo 1-2ko ikasleek. Azke-
nik, 23an, dirua jasoko dute
16:30etik 18:00etara.

Oriartekide guraso elkarteko
bazkide direnen prezioak: 16
euro erostean eta 15 euro saltzean.
Bazkide ez direnentzat: 20 euro
erostean eta 10 euro saltzean.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea, 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua:
SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria,
Iñigo Gonzalez Sarobe,
Maddi Noriega Zaldúa
eta Lierni Apaolaza
Urdanpileta.

Publizitatea
Irati Zatarain Peña.

Zintilloaren egilea
Jesus Garcia Vivar.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni Rekondo,
Gorka Alvarez, Aizpea
Amas, Maitane Rebe, Jexux
Artetxe, Oihane Puertas
eta Pili Ormazabal.

Banatzaileak
Nora Navarro, Aimar
Hernandez, Gari Iraola,
Axier Iraola, Eneko Sanchez
eta Udane Guisado.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ondo pasa San Pedro Jaietan!

Uraitz, s.l.



**Igeltseritza
Orokorra**

• BARRUKO BERRIKUNTZAK

• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAI-
LEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ
BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA
S.A.T.E. SISTEMA

• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU
GEHIGARRIRIK GABE

• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA
DUTXA EXTRALAUARENGATIK
EGUN BAKARREAN

Telefona

693 05 93 92
943-56 66 40

uraitz@uraitz.com

www.uraitz.com

BULEGOA:

HIPRODOMO ETORB. 10 BEHEA 3
LASARTE-ORIA

LUIS CAR

autobusak

Gora Lasarte-Oria! Gora sanpedroak!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak



GESTORÍA / FINCAS / INMOBILIARIA

BERME

Betelu TALDEA



emekin

Gipuzkoako Foru
Aldundiak emakume
ekintzailei eskaintzen
dien aholkularitza zerbitzu
ofiziala gara.

- Lan, zerga eta kontabilitate arloko aholkularitza
- Finken administrazioa
- Etxe agentzia
- Trafikoa
- Atzeritarren gestioa

Berme BETELU TALDEA
Hipodromo etorbidea, 5
20160 Lasarte-Oria
943-36 48 86 | 666 40 91 94
betelu@berme.eus

FAMILIARENTZAKO MODA GUZTIA LEKU BAKAR BATEAN

BISITA GAITZAZU URBILEN

C&A



URBIL

Gora San Pedro Jaiak! Gozatu festak!



943 366 377



dentalaldaz.com